

ASTEAZKENA

2019/10/30

7. urtea, 1.134 zenbakia

107,6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

Hamasei talde ariko dira bihartik, Abesbatza Lehiaketan

51. Abesbatza Lehiaketan ganbera abesbatzekin batera, ahots taldeek ere hartuko dute parte, musika sakratuan eta profanoan; ohi bezela, Tolosa herri abesbatzen hiriburu bilakatuko da // **2-3**

Mendia gogoko duten herritarrak batzeko Bidetxur Kirol Taldea sortu dute Ibarra

Entrenamenduak antolatu edota lasterketetarako deialdiak egiteko asmoa ere badute, eta Ibarra herria ekitaldietan presente izan dadin elastikoak egin dituzte // **6**

Arte grafikoetako greba deialdiak bertan behara utzi dituzte

Adegi patronalarekin akordiorako oinarria lortu du LAB sindikatuak; ELAk ez du babestu akordioa, «soldata igoerak ez direlako nahikoa» // **3**

Giro «ona» nabarmentzen dute Intxurre futbol elkarteak talde nagusiek

Erregional mailan ari dira bi taldeak; emakumeena gorengoan lehiatzen da eta ligan hirugarren dago; gizonena lehen mailan ari da eta laugarren doa // **7**



ENERITZMAIZ

«Gazteak, jolasaren bidez, lehen sektorerara gerturatu nahi ditugu»

IKER KARRERA TOLOMENDIKO KUDEATZAILEA

Eskualdeko 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako Jan Tolosaldea Bideo Laburren lehiaketa antolatu du Tolomendik, 'Tolosaldeko Ataria'-rekin elkarlanean; eskualdeko lehen sektorea gazteen begietatik ikusi nahi dute // **4**



Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

Lau eguneko oasia belarrientzat

Bihar ekingo diote Tolosako 51. Abesbatza Lehiaketari, Leidor aretoan, eta, igandera bitarte, herria abesbatzen munduko hiriburu bilakatuko da. Aurtén, ganbera abesbatzekin batera, ahots taldeen txanda izango da, eta musika sakratuan eta profanoan ariko dira.



Collegium Musicum Berlin (Alemania)

Berlingo ganbera abesbatza hau 1989an sortu zuten, eta hainbat sari irabazitakoa da, batez ere, *a capella* abestuz. Donka Miteva da zuzendaria.



Aurum (Espainia)

Harrobiaren fruitua da ganbera abesbatza, eta soinuaren kalitatea bilatzea da emakume ahots hauen helburua. 2014an polifonia-fokloreko 3. saria jaso zuten Tolosan.



Coro Gaos (Espainia)

Izen bereko orkestratik sortutako proiektua da, eta *a capella* musika eta musika sinfonikoa lantzen dituzte. Hainbat sariren jabe dira, 2010ean hasi zirenetik.



Consolatio Choir (Indonesia)

Sumatrako Medango unibertsitate ikasleek sortutako korua da, eta kalitatezko maila dute. Besteak beste, Grazen (Austria) bi domina jaso zituzten 2017an.



JCA National Youth Choir (Japonia)

Gazteentzako abesbatzen udalekueetatik sortutako taldea da, eta Japonia osoko abeslariak daude. Errepertorio zabala eta teknika ezin hobea dituzte.



Mixed Choir Pa Saulei (Letonia)

2009an sortua, Letoniako koru sortzaileena da. 2014ko *Internationaler Robert Schumann Chorwettbewerb & Festival*-eko sari nagusia dute lorpen handiena.



441 Hz ganbera abesbatza (Polonia)

Gdansk musika akademiako ikasleek sustatutako korua, Poloniako laudorioztatuena da. Erosotasun gunetik irten, eta diziiplina arteko lanak egin ohi dituzte.



Männerstimmen Basel (Suitza)

Beren herrialdeko eta nazioarteko epaimahaiak txundituta utzi izan dituzte. 18-32 urteko gizonezkoz osatutako abesbatza da, eta horrek ere berezi egiten ditu.



Swara (Belgika)

AHOTS TALDEA. Bruselan du jatorria, eta abeslari profesionalak dira, musika garaikidea eginez. Beren ahots tinbre bereziengatik aukeratu dituzte lehiarako.



Vocal Group ERA (Letonia)

AHOTS TALDEA. Hamar urteko ibilbidea osatu dute 6 emakumeek, eta Letoniako ahots talde ezagunenetakoa da. 2012. urtetik hona hainbat sari jaso dituzte.



Art'n Voices vocal ensemble (Polonia)

AHOTS TALDEA. Erdi Arotik aro garaikidera bitarteko musika lantzen dute, eta azken bost urteotan bedertzi sari nagusi jaso dituzte Europan.



The Korrigan Consort (Erresuma Batua)

AHOTS TALDEA. Oxford-en dute egoitza, eta antzina-ko eta egungo musikaren ikuspegi esperimentalak lantzen dituzte. Bost kide ariko dira Tolosan.



Batavia Madrigal Singers (Indonesia)

Indonesiako koru misto onenetakoa, eta Tolosako lehiaketan aski ezaguna: 2017an, sari nagusia irabazi zuten, eta Europako Sari Nagusia lehiatu den koru indonesiar bakarra dira.



Bel Canto Choir Vilnius (Lituania)

2009an sortutako taldea, Lituaniako abesbatza misto ez profesionaletan onena da. 2014ko udan munduko abesbatza onenen klubera batu, eta 90,63 punturekin urrezko domina lortu zuten.



Gema Sangkakala (Indonesia)

AHOTS TALDEA. Indonesiako emakume abesbatza onenetarikoa da, 16 kidez osatua, eta emaitza bikainak lortu izan dituzte, bai Indonesian, bai nazioartean.



Glier Institute of Music Vocal Group (Ukraina)

AHOTS TALDEA. Kiev-eko Glier musika institutuko emakumeen abesbatza da, Galina Gorbatenkok zuzendua. Jatorri ukrainarra duen zuzendari ezagunenetakoa da nazioartean.

Pirritx, Porrotx eta Marimots Asteasun, azaroaren 10an

ASTEASU // *Bizi dantza!* emanaldia ikusteko sarrerak 7 euroan erosi ahal izango dira, Asteasuko Mattin eta Villabonako Basajaun liburu dendetan. Interneten ere eskuratu ahal izango dira. Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Usarrabi kiroldegian, azaroaren 10ean 17:00etatik aurrera eskainiko dute ikuskizun berria. «Pozak eta tristurak azaltzeko dantzatzeko gara», esan dute pailazoei emanaldi berria aurkezteko.

Euskara mahaiaren lehen bilera egingo dute, gaur, Villabonan

AMASA-VILLABONA // Lan-mahai honek herri mailako izaera izango du, eta udaleko talde politiko-etako ordezkariak eta euskara teknikaria bertako kide izango dira, parte hartu nahi duten herritarrekin batera. Euskara maite duten eta euskaraz bizi nahi duten herritarrak animatu dituzte udaletik lan mahai honetan aktiboki parte hartzera. Udal batzar aretoan egin dute hitzordua, gaur, 18:00etan.



ZIZURKILGOAK IRLANDARA

**Erasmus + egitasmoaren baitan kokatuta, 24 gaztek hartuko dute parte egonaldian. Zizurkilgoekin batera Donibane Garaiz eta Elgoibarkoak ere atzo abiatu ziren Irlandara. Gaelikoa-
ren errealitatea ezagutzeko Galway herrian egongo dira azaroaren 4ra arte, Muintearas Teo elkarteko 8 gazterekin.** ATARIA

Xaboi naturalak egiteko lantegia egingo dute Alkizan

ALKIZA // Bidatz Sasiainek eskainiko du tailerra azaroaren 16an, 09:30etik aurrera. Lau orduko saioa izango da eta, plaza kopurua mugatua denez, alkizarrek lehentasuna izango dute izena ematerakoan. Horretarako, 688 604 466 zenbakira deitu edo idatzi kultura@alkiza.eus helbidera, azaroaren 8a baino lehen.

Omenaldi bazkaria antolatu du Elizpek azaroaren 17rako

ZIZURKIL // Aurten, Zizurkilgo Paser jatetxean egingo dute. Menuaren prezioa 27 eurokoa izango da, baina bazkideek 25 euro ordaindu beharko dituzte. Interesa dutenek Elizpe erretiratuen elkartean bertan eman dezakete izena, asteazken eta ostiraletan, 11:00etatik 13:00etara.

Etxeko botikina prestatzeko ikastaroa izango da Fraisoron

ZIZURKIL // Azaroaren 19tik 21era eskainiko dute eskolan, 15:30etik 19:30era. Gaztelaniaz izango dira saioak Clara Gutierrez irakaslearen eskutik. Gaitzarinak sendatzeko erremedio naturalak azalduko dira. Informazioa eta izen ematea fraisoro@fraisoroeskola.eus helbidera edo 943 69 21 66 telefonora.

Efektu berezien makillaje tailerra egingo dute bihar

IRURA // 4 eta 10 urte bitarteko (HH2-HH5) haur eta familientzat izango da tailerra eta 3 euroko kostua du. Bihar, urriak 31, 16:30ean izango da Irurako ludoetean. Udalak jakinarazi duenez, zaintza zerbitzua egongo da 2017 urtean edo lehenago jaioetako haurrentzat.

Akordiorako oinarria hitzartu du LABek arte grafikoetan

Sindikatuak esan du lehen aldia dela Adegik blindaje klausula bat onartzen duena, sektorea estatuko hitzarmenetik babesteko

Hodei Iruretagoiena Berria

Urte hasieratik negoziatzen aritu eta zortzi greba egun egin ondoren, hitzarmena berritzea adostu du LABek Gipuzkoako arte grafikoetan. Bost eguneko greba deialdia zuten datorren astera, baina sindikatuak atzo jakinarazi zuenez, akordiorako oinarria lortu dute Adegik patronalarekin. Negoziazio bidez hitzartutakoa batzarretan berretsi beharko dute langileek, datorren astean. Bitartean, sindikatuak jakinarazi du bertan behera utzi dituztela greba deialdiak, eta langileek onetsiz gero, azaroaren 11n sinatuko dute akordioa.

Soldata igoerak eta bestelako eskubide batzuk ere jaso dituzte aurreakordioan. Soldata KPIaren gainera igoko diete, urtez urte, 2021ean KPI baino 0,75 puntu gehiagora iritsi arte. Hitzarmeneko bi kategoria baxuek (1.16 eta 1.21) batu eta haiei 1.200 euroko gutxieneko soldata bermatzea ere lortu dute.

1.300-1.400 langile inguruk osatzen dute Gipuzkoako arte grafikoen sektorea, tamaina txikiko 140-150 enpresak, gutxi gorabehera. Sindikatuei dagokienez, berriz, sektoreko langileen %52 ordezkatzen du LABek, %46 ELAk eta %2 UGTk. ELAk, ordea, ez du babestu aurreakordioa: «Patronalak jarraitzen du aldi baterako laneko enpresen eta lizentzien lege egokitzapenak bere proposamen gisa saltzen». Sindikatuaren iritziz, 1.47 profila gutxienekoa izan behar litzateke, eta soldata igoerak ez dira nahikoa. «Harrituta» agertu dira LABen erabakiarekin, «borroka presaka utzi eta jada fruituak ematen hasia zen gatazka bat desaktibatu» duelakoan.

Beste garaipen bat ere nabarmendu du LABek: blindaje klausula bat sinatu du Adegik, Gipuzkoako hitzarmena Espainiako Estatutotik babesteko. «Adegik sinatzen duen lehen aldia da», azaldu dute: «Duela gutxi, baztertu egin zuten papergintzaren hitzarmenean».



E. MAIZ

«Ikastetxeena bereziki bide interesgarria ikusten dugu»

IKER KARRERA TOLOMENDIKO GERENTEA

Jan Tolosaldea Bideo Laburren lehiaketa antolatu du Tolomendik, 12-18 urte arteko gazteei zuzenduta. Bideoak aurkezteko azken eguna azaroaren 10a da.

Eneritz Maiz Etxarri Amezketak

Tolomendi Landa Garapen Elkartek Jan Tolosaldea Bideo Laburren Lehiaketa antolatu du, gazteei begira.

Zer dela eta antolatu duzue bideo laburren lehiaketa?

Jan Tolosaldea dagoeneko ibilbide bat egin duen ekimena da. Eskualdeko udalekin, eta batez ere, lehen sektoreko eragileekin martxan jarri genuen ekimena. Izenak berak esaten du: Tolosaldea garatzeko eta Tolosaldea egiteko moduetako bat eskualdeak berak ekoizten dituen produktuak kontsumitzetik abiatzen da. Mezu hori da Jan Tolosaldeak bilatzen duena. Gure kasuan, batez ere, landa eremuak sortzen dituen produktuak, nagusiki nekazaritzakoak, kontsumitzea sustatu nahi da. Batez ere, bertan. Guk geuk nahi duguna da

eskualdean produzitzen den hori, kontsumitzea; ulertzen dugulako horrek ekonomiaren gorpil bat mugitzen laguntzen duela. Bertako garapena sustatzeko modurik iraunkorrena hortik abiatzen dela eta Jan Tolosaldeak hori sustatu nahi du, bertakoaren kontsumoa sustatuz.

Gazteak dituzue helburu.

Bideo lehiaketarekin jende gaztearengana iritsi nahi da. Mezu hau jende gaztearengana ere iristea nahi dugu, eta gaztearengana iristeko zerbaite ezberdina egitea iruditu zitzaigun egokia. Teknologia guztiz berea dute, eta beste eskema eta kode batzuekin funtzionatzen dute, eta ziurrenik hitzaldi edota eskuorrien formatuak ez zirela erabilgarri izango, eta buelta bat eman diogu. Beraiegunara iristeko eta mezua jasotzeko, beraiei jarrera aktiboago bat proposatu diegu, eta

lehiaketa da gai horretara gerturatzeko bidea.

Zer lortu nahi duzue?

Jende gazteak eskualdeko lehenengo sektorea, eskualdeko produktuak, elikadura,... Zein begirada duten, eta nola bizi duten gazteek jakin nahi dugu. Hori jaso nahi da, eta horra iritsi nahi dugu. Hausnarketa baterako baliobadiei ere oso ondo, baina ez dugu nahi izugarritzko hausnarketa sakonetan sartzea. Jolas baten bidez, eta lehiaketa bera, jolas baten moduan proposatzen diegu. Jolas horren bidez eskualdeko lehen sektore, produktu eta elikadura sistemara gerturatzea nahi dugu. Eta beraien sormen eta jolasetik bururatzen zaiena egin dezatela. Gure ondorioak ateratzeko balioko digu. Gazteen begietatik nola ikusten den eskualdean landa eremua, lehen sektorea, bertako produktua eta elikadura. Hori da nahi duguna, eta jolas-ariketa hau proposatu zaie, eta ea zer erantzun jasotzen dugun.

Gazteak aipatu dituzu. Zein adin tarteri zuzendua dago?

Bideo lehiaketa bat proposatzeko bideoak egin, egin behar dira. Bideoak modu xume eta erraz batean egiteko, esaterako, errazena mugikorren bidez izan dai-

teke. Guk, ordea, ez dugu esango nola egin behar duten, eta arrazoizko adin tartea, 12-18 urte artekoa izango da.

Zenbateko iraupena izan behar du bideo laburrak?

Bideo laburra esatean hiru minutu jarri dugu gehienez. Hortik gora luzeegia dela esaten dute, eta inork ez dugula ikusten, eta beraz, hori hartu dugu oinarri.

Gaia garbi utzi duzu.

Bai, baina gauza bat azpimarratu nahi nuke. Guri ikustea gustatuko litzaizkigukeen bideoekin ez dugu topo egin nahi. Esan dugun marko horrekin, gazteen begietatik, bakoitzak beretik egin dezala eta beretik sortu dezala. Guk gure mezuaren baieztapen bat ez dugu bilatzen, baizik eta, beraiek beraien begietatik ikusten dutena; beraiek barrutik dakitena, beraiek sentitzen dutena. Hortik ekoitzi eta egin dezatela. Benetan horrek emango digulako benetako argazkia.

Banaka edo taldean aurkeztu daitezke, ezta?

Banaka edota taldean aurkeztu daitezke. Gehienez zortziko taldeak izan daitezke. Eta ikastetxek ere aurkeztu daitezke.

Nori zuzenduko diegu gazteak parte hartzera animatzeko mezua?

Batez ere ikastetxeen bidea dela baliagarria iruditzen zait, eta gurasoena ere bai, noski. Ikastetxeek hala nahi baldin badute, ikastetxearen prozesuan lanketa bat egiteko ere baliagarria izan dakieke. Lotu dezakete, eta jolas edo lehiaketa hau baliatuz, atzean dagoen guzti horren lanketa egin dezakete. Ikastetxeena bereziki bide interesgarria ikusten dugu; esparru garrantzitsu bat dago.

Noizko aurkeztu beharko dituzte bideo horiek?

Azaroaren 10a jarri dugu epe muga moduan. Ostean, epaimahaiak biltzen hasi beharko du, eta abenduan dagoeneko baloratuta eduki beharko ditugu. Sari banaketa abenduan egin nahi

«**Banaka, taldean edo ikastetxek aurkeztu daitezke**»

«**Ikastetxeek nahi baldin badute, ikastetxearen prozesuan lanketa egiteko ere baliagarria izan dakieke**»

«**Jolasaren bidez eskualdeko lehen sektore, produktu eta elikadura sistemara gerturatu nahi ditugu**»

dugu. Sariak egongo dira, eta sari banaketa ekitaldi baten barruan egingo dugu, eta bideoak gizarteratu egingo dira. Bideoak jan-tolosaldea@gmail.com helbidera bidali beharko dira.

Zeresanongo zeniek gazteei?

Animatzeko parte hartzera, eta jolas egitera animatzen ditut. Bakoitzak beretik ematen badu, uste dugu eskualde aberatsago bat egiteko izango dela. Eta horretarako Tolomendiko web orrian, eta TOLOSALDEKO ATARIArekin dugun elkarlanari esker, bi webguneetan dago informazio guztia.

Bertakoa kontsumitzeak garrantzia du.

Bai, hasieran esan dut. Batez ere eskualde honetako landa eremuen garapenerako hor dauden aktibitate ekonomikoetarako, produktuen ekoizle moduan ulertuta, oinarritzekoena nekazaritza da. Produktu horien garapena kontsumotik dator, bestela, gorpilak ez du bueltarik ematen. Eskualdeko eremu horien sustapena da bultzatu nahi duguna. Giltzarri da bertan ekoizten dena kontsumitzea. Hirigunean bizi diren herritarren elikadura sistema iraunkor bat izatea nahi baldin badugu, zer hobe gertukoena kontsumitzea baino.

Izarrei begira hasiko dute kultur eskaintza ikaztegiatarrek

Ikaztegiatako Udalak bi hilabete ekitaldiz bete ditu, eta asteartean emango diote hasiera gaueko izarren behaketarekin

Eneritz Maiz Etxarri
Ikaztegieta

Zerura begira jarriko ditu herri-tarrak Ikaztegiatako kultura batzordeak. Azaroa eskaintza ezberdinez bete dute, eta lehena, azaroaren 5ean izango da. Behin ilunduta, 19:00etatik 21:00etara, Aranzadi zientzia elkarteak ki-deek izarren inguruko azalpenak emango dituzte, plazan.

Ostiralean, azaroaren 8an, herri-ritar baten txanda izango da. Maddalen Diazek, *Nola bizi hondakinik sortu gabe* hitzaldia eskainiko du. Larunbatean, berriz, josten ikasteko tailerra izango da joskintzan lehen pausoak ematen hasteko. Oinarritzkoa izango da, hau da, botoia jarri, zulo bat josi, baxua hartu edota kremailera bat nola jartzen den erakutsiko da, bi ordutan. Interesatuak udaletxean izena eman beharko dute, eta azaroak 4 da azken eguna. Tailerrera bakoitzak josteko



Ikazne pertsonaiaren istorioak berriz ere herria hartuko du. E. MAIZ

beharrezkoa den oinarritzko materiala eraman beharko du, eta baita praktikan jartzeko arropa edota oihala ere.

Hortik aurrera, 15ean, Urko Perez joango da pornografiaren gaineko hitzaldi bat ematera. 16an, herri krosa izango da arratsalde, eta 17an, Erretirodunen Eguna ospatuko dute. Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, elkarretaratze zaratsua egingo dute, eta

28an, Ikazne pertsonaiak agerraldia egingo du liburutegian, istorioa kontatuz. Eta hilabetea ixteko *Pobresiak* ikus-entzunezkoa izango da.

Abenduan, Euskararen Nazioarteko Eguneako ekitaldietara adi egoteko deia egin dute. Haurrek ipuin kontaketa izango dute, eta helduek dokumentala. Eta urtea amaitu aurretik, Olentzero eta Mari Domingik ez dute hutsik egingo.

Erretirodunen Eguna, San Martin egunean

Azaroaren 11n, besteak beste, bazkaria egingo dute eta izena eman da azaroaren 4a baino lehen

E. Maiz Amezketa

Gero eta gutxiago falta da San Martin egunerako, eta Amezketa prest dute Erretirodunen Eguna. Aurten astelehenez egokituko da, eta lehenik eta behin, 11:30ean, meza nagusia izango dute. Ondoren, bertsolari eta trikitilarien saio labur batez gozatzeko aukera izango dute, San Martinen bertan.

Amezketa erroldatutakoei eta 60 urtetik gorakoei zuzendutako eguna da honakoa.

IZENA EMAN BEHAR DA

14:00etan, Txindoki jatetxean elkartuko dira eta bazkaria egingo dute. Bazkalostean ere ez da faltako ez trikiti doinurik, ez eta, bertsorik ere. Bazkaritara joan nahi duenak, ordea, aldeztu aurretik izena ematea beharrezkoa izango du. Horretarako, interesatuak azaroaren 4a baino lehen udaletxera jo beharko dute. Bazkariak 30 euroko kostua izango du.

Bihar, 19:00etan, ohiko osoko bilkura egingo dute

AMEZKETA // Amezketako udaletxean, bihar, ohiko osoko bilkura egingo dute, 19:00etan. Zortzi puntuko gai ordenan, alkatetza ebazpenen berri emateaz gain, kreditu aldaketa, argiteria publikoaren hornidura esleitzeko proposamena edota Kataluniari buruzko adierazpen instituzionala izango dituzte hizpide.

Gaztaina jatea egingo dute Zazpi Iturri elkarteak

AMEZKETA // Urte sasoi honetan gaztainak jatea ohiko da, eta horixe bera egingo dute Amezketa. Azaroaren 1ean, ostiralean, Zazpi Iturri elkarteak elkartuko dira gaztainak jateko.

'Konplizeak' antzezlanak ikusteko aukera, Altzon

ALTZO // Azaroaren 8an, ostiralean, *Konplizeak* antzezlan eskainiko dute Altzoko Batzarremuñon. Berrobiko Txalo Talo konpainiaren eskutik izango da antzezlan, eta 20:30ean hasiko dira antzeztzen Aloña Izagirre, Ana Goñi, Aran Rodas, Joseba Izagirre, Mikel Agirretxe eta Oihane Vergara aktoreak.

Azaroaren 3an itxiera luntxa Abaltzisketako Ostatuan

ABALTZISKETA // Abaltzisketako Ostatuak ateak itxiko ditu, eta itxiera luntxa izango da, 18:00etan. Obra batzuk egin ostean, urtarrilaren 7an zabalduko ditu berriz ateak Ostatuak.

KULTURALDIA

Azaroak 5, asteartea

19:00-21:00. Izarren gaueko behaketa Aranzadi zientzia elkartearen eskutik, plazan. (Herriko argiak itzailiko dira).

Azaroak 8, ostirala

19:30. *Nola bizi hondakinik sortu gabe* hitzaldia, Maddalen Diazen eskutik, udaletxeko erabilera anitzeko aretoan.

Azaroak 9, larunbata

10:00-12:00. Josteko tailerra: *Botoia, kremailera, bajua, zuloak...* nola josi? Udaletxeko erabilera anitzeko aretoan. Azaroak 4 da udaletxean izena emateko azken eguna, eta materiala bakoitzak berea eraman beharko du josteko tailerrera.

Azaroak 15, ostirala

19:00. *Pornografia web como productora de masculinidad* prostituyente hitzaldia, Urko Perezen eskutik, 19:00etan, udaletxeko erabilera anitzeko aretoan.

Azaroak 16, larunbata

16:00. Herrigintza elkarteak antola-

tuta Ikaztegiatako XXIX. Herri Krosa umeak.

16:30. Helduak. 10 kilometro.

Azaroak 17, igandea

12:15. Sutarri dantza taldearen emanaldia udaletxeko erabilera anitzeko gelan.

14:00. Erretirodunen bazkaria, Ostiatun. Azaroak 11 baino lehen eman beharko da izena, udaletxean.

Azaroak 25, astelehena

18:30. Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna. Elkarretaratze zaratsua, plazan. Ekarri zure ontziak zarata ateratzeko!

Azaroak 28, osteguna

16:30. Ikazneren istorio kontaketa, liburutegian, 16:30ean.

Azaroak 29, ostirala

19:00. *Pobresiak* ikus-entzunezkoa, udaletxeko erabilera anitzeko aretoan.

Abenduak 3, asteartea

Euskararen Nazioarteko Eguna: Egon Adi!!!

Abenduak 12, osteguna

16:30. *Oihane*ko tira-birak Ane Gera ipuin kontalariarekin, liburutegian.

Abenduak 13, ostirala

19:00. *Arrastoan* dokumentalaren proiektzioa, udaletxeko balla anitzeko gelan.

Abenduak 24, asteartea

18:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, plazan.

Atarikideentzat bi sarrera ditugu
DELTECO GIPUZKOA BASKET - B THE TRAVEL BRAND MALLOCA
partida ikusteko
Azaroak 3, 12:00etan, Jose Antonio Gasca pabiloian.
Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

Atarikideentzat disko bat daukagu
50. Tolosako Abesbatza lehiaketako DISKO KAXA berezia

Bidetxur Kirol Taldea sortu dute Ibarra, zaletasunak batzeko

Mendia gogoko duten herritarrak elkartzea da taldearen helburuetako bat; talde izaera hartzeko, elastikoak atera dituzte eta datozen egunetan jarriko dituzte salgai

Irati Saizar Artola Ibarra

Ibarrako herritar talde bat zaletasun berberak batu du: kirolak, eta, bereziki, mendian lasterka egiteak. Hortik sortu dute Bidetxur Kirol Taldea. Mendizaletasuna duten herritarrak batu eta inguruko mendi zein lasterketetan Ibarra herria presente izan dadin, elastikoak atera dituzte.

Iker Gibelalde herritarra da talde izaera hori sortzen ari denetako bat: «Ikusirik geroz eta ibartar gehiago garelako mendien bueltan gabiltzanak, bai korrika, bai oinez, bai mendi bizikletan, talde bat eratzea erabaki dugu, helburu desberdinekin».

Bidetxur Kirol Taldearen helburu nagusia «mendizaletasuna duen jendea elkartzea» da, eta tarteka, entrenamenduak antolatu, lasterketetarako deialdiak egin edota ekintza ezberdin bat antolatzen denean jakinaren gainean egotea da asmoa. «Jende asko ibiltzen gara lasterka, baina bakoitza bere kontura, asmoa elkartu eta talde dinamika bat hartzea da», dio. Horretarako, WhatsApp talde bat eratzea darabiltela buruan azaldu du.

Informazio hori partekatzeaz gain, beste helburu batzuk ere jarri dituzte aurrera begira: «Besteak beste, Uzturpe Ikastolako mendi taldea gidatu nahiko ge-



Iker Gibelalde eta Maitane Garmendia herritarrak, elastiko berriekin. I. SAIZAR

nuke, eta urtean zehar bost bat irteera antolatu ikastolako familientzat. Horrez gain, gaztetxoentzat mendi bizikletarekin irteerak ere antolatu nahiko genituzke, eta aurrera begira, irekita gaude mendiari lotutako edozein proposamen jaso, entzun eta aurrera eramateko».

Horri forma emateko, Ibarra izena eramango duen elastiko bat atera dute: «Taldea irudi bat eman eta zein herritako partaideak garen erakutsi nahi dugu».

Dagoeneko elastikoa ikusgai dago Zubiaurre eta Atari tabernetan, eta datorren astetik aurrera egunak, orduak eta tokiak zehaztuko dituzte, kamiseta probatzeko aukera eskaini eta eskaerak egin ahal izateko. Ibartarrak dioenez, «asmoa, kamiseta hori ibartarren artean banatzea da, ez soilik mendian korrika ibiltzen direnen artean, ordea, baita oinez ibiltzen direnentzat edo erosi nahi duen edonorentzat».

Ipuin kontalaria izango dute gaur, txikienek, Ibarra

IBARRA // Ibarrako udal liburutegiak antolatuta, Izaskun Mujika ipuin kontalaria saioa eskainiko du, gaur, 17:30ean, Ibarrako kultur etxean. Kontaketa 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzat izango da, eta antolatzaileek oharra bidali dute, haurrek zaintzailearen batekin egon beharko dutela eskatuz.

Gau Beltza ospatuko dute, bihar, Lizartzako gaztetxoenek

LIZARTZA // Biharko arratsalde erditik aurrera, Gau Beltza ospatuko dute Lizartzan. 18:30ean ipuin kontaketa izango da liburategian, eta ondoren, eskulanak, beldurrezko ibilbidea eta gaztaina jatea izango dituzte. Eskolak, liburutegiak eta herriko gurasoek hartu dute guztia antolatzeko ardura.

Petti bakarlariaren kontzertua, bihar, Sendi Ekintzan

IBARRA // Hileko azken ostegunerako, biharko, kontzertu berezia antolatu dute Galtzaundi euskara taldeak eta Ibarrako euskara taldeak Sendi Ekintza elkartearen: Petti bakarlari naffarrak kontzertua eskainiko du 19:00etan. Beratarra da Petti eta amerikar sustraiak dituen rocka egiten du.

Bihar izango da azken eguna eski ikastaroan izena emateko

LIZARTZA // Lizartzako Udalak Gaztematikarekin batera, eski irteera antolatu du Astunera, 2002 eta 2007 urte artean jaiotakoentzat, abenduaren 27 eta 28rako. Monitoreen laguntzaz, maila guztietarako klaseak jasotzeko aukera izango da; 50 euro ordaindu beharko dira, eta bihar amaituko da apuntatzeko epea.

Josteko tailerra antolatu dute Lizartzan

I.S.A. Lizartza

Eskuz zein makinaz josteko oinarritzko tailerra antolatu du Lizartzako Udalak. Astearteetan izango da eta bi talde egitea aurreikusiko dute: bata, 16:30etik 18:00etara, eta bestea, 18:15etik 19:45era. Azaroaren 5ean hasia da asmoa, eta urtarrila bitarte iraungo du; guztira, 11 saio izango dira.

Irakasle lanetan Leire Gordo arituko da eta 60 euro ordaindu beharko dira. Materiala behar izanez gero, 15 euro gehiago ordaindu beharko dira, baina, norberak berea eman dezake gehiago ordaindu gabe. Bestalde, josteko makina ere norberak eramane beharko du, gainerakoa, izen ematerako orduan abisatu beharko da. Gaur izango da apuntatzeko azken eguna.

Hilberriak eta urteurrenak



Garbiñe Sagastibeltza



Zu maitatzea oso erraza izan da zure irrifarra, ezinezkoa ahaztea Izar berri bat zeru ilunean eta zu beti gure bihotzetan.

Zure lagunak

TOLOSA, 2019ko urriaren 30a

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 €	• Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 €	• Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 €	• Harpidedunentzat 25 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Giro ona, oinarri

Intxurre futbol taldeak emakumezkoen eta gizonezkoen taldeak ditu erregional mailan lehiatzen

Imanol Garcia Landa Alegia

Intxurre futbol elkarteak erregional mailan ditu bere bi talde nagusiak. Emakumeena goren-go mailan du eta gizonena lehen mailan. Iñigo Ormazabal da emakumeen entrenatzailea eta «oso gustura» dago ligan egiten ari direnarekin. Sei partida jokatu dituzte eta, beraz, lehen itzulia bukatu dute, eta hirugarren postuan daude, zortzi punturekin. «Entrenatzaile bezala lehenengo urtea izanik, ez nekien ligak ze maila izango zuen, eta oso gustura gaude orain arte lortutakoarekin».

Laguntzaile moduan aritu ondoren, lehen urtea du entrenatzaile moduan Beñat Hierrok gizonezkoen taldean. Lehenengo itzulia bukatzeko bi partidetan faltan, laugarren doaz, hamar punturekin. «Oso txukun goaz», esan du Hierrok. Hain justu, helburu moduan, «taldean gustura egotea eta entrenatzeaz» gain, lehen lau postuetan amaitzea da, igoe-ra fasea jokatu ahal izateko. «Eta gora igotzeko aukera badugu, ondo, eta bestela hurrengo urtean izan beharko du».

Bere aldetik, lehenengo helburua jokalaria «entrenatzaile gustura etortzea» dela esan du Ormazabalek. «Partidetan denek ahal den minutu gehienak jokatzea da. Lagun talde handi bat osatzen dute, hiru bat jokalaria izan ezik betidanik ezagutzen dute elkar». Emaizak iristen badira «denak gustura egongo gara, eta emaitzek ez badute laguntzen, pixka bat pisutsuagoa izango da. Baina helburu nagusia kirol testuinguru batean umore ona mantentzea da».

Aldaketa nagusi bat izan da aurtengo denboraldian gizonezkoen taldean, hainbat urtetan entrenatzailea izan den Santos Irazustabarrenak ez baitu jarraitu. «Santosek lasaitasun puntu bat ematen zion taldeari. Otaño eta ni pixka bat urduriagoak gara, baina moldatuko garela uste dut», esan du Hierrok.

Bi taldeetan jokalaria gehienak Alegia eta inguruko herrietakoak dira. Futboleko jokatu nahi duenarentzat bi taldeetako ate-



Intxurreko erregional gorengo mailako taldea. PATXIRENOBALES



Intxurreko erregional lehen mailako taldea. PATXIRENOBALES

PARTAIDEAK

Erregional gorengo maila

Nora Alustiza. Atzelaria. Alegia.
Oihana Agirreurreta. Eskuin hegalekoa. Alegia.
Ane Arandia. Atzelaria. Alegia.
Angela Bach. Atzelaria. Altzo.
Claudia Bach. Ezker hegalekoa. Altzo.
Carol Achaga. Erdilaria. Villabona.
Larraitx Balerdi. Eskuin hegalekoa. Alegia.
Uxue Balerdi. Atzelaria. Alegia.
Alaia Bengoa. Erdilaria. Alegia.
Leire Camaron. Aurrelaria. Azkoitia.
Maria Etxeberria. Aurrelaria. Amezketa.
Uxue Nafarrate. Atzelaria. Alegia.
Lorea Senperena. Erdilaria. Abaltzisketa.
Naiara Severinu. Erdilaria. Alegia.
Maddi Uria. Erdilaria. Ikaztegieta.
Aroa Arteaga. Ezker Hegalekoa. Villabona.
Ametz Galarza. Atzelaria. Amezketa.
Iñigo Ormazabal. Entrenatzailea. Alegia.
Ander Zubeldia. Laguntzailea. Altzo.

ak irekita dituztela diote entrenatzaileek. Ormazabalek, gainera, deialdi berezia egin du emakumezkoen talderako atezain postua betetzeko. Izan ere, atezaina zenak denboraldi honetan utzi egin du taldea eta atezainik gabe daude, eta orain arte beste jokalaria txandaka ari dira postu hori betetzen.

Erregional lehen maila

Mikel Oiarbide. Atezaina. Alegia.
Asier Alustiza. Atezaina. Alegia.
Xiker Renobales. Atzelaria. Alegia.
Aitor Altuna. Albokoa. Tolosa.
Ander Camarero. Aurrelaria. Ibarra.
Imanol Jimenez. Atzelaria. Alegia.
Ibai Gabirondo. Atzelaria. Alegia.
Endika Rezola. Albokoa. Altzo.
Lander Alkiza. Albokoa. Ikaztegieta.
Igor Mendizabal. Erdilaria. Alegia.
Iñigo Otamendi. Hegalekoa. Alegia.
Jokin Ormaetxea. Aurrelaria. Tolosa.
Xabier Yugueros. Erdilaria. Abaltzisketa.
Xanet Egiguren. Albokoa. Tolosa.
Unai Llamas. Albokoa. Alegia.
Aritz Peñagarikano. Albokoa. Anoeta.
Iñigo Ormazabal. Aurrelaria. Alegia.
Mikel Ormazabal. Erdilaria. Alegia.
Issam El Moussaoui. Albokoa. Ibarra.
Erlantz Martin. Albokoa. Tolosa.
Beñat Hierro. Entrenatzailea. Irura.
Joxan Otaño. Entrenatzailea. Irura.

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Ettxeko lanak.

Ettxeko lanak egiteko, pertsona bat hartuko litzateke. Interesatuak, deitu 688 888 207 telefono zenbakira, 12:00etatik 14:00etara.



Igarondo Urpekoak taldeko kideak, Ordizian. ATARIA

Igarondo Urpekoak taldeko 24 igerilari, lehen jardunaldian

Erredakzioa

Ordiziako igerilekuan egin da hegats igeriketako ligako lehenengo jardunaldia. Bertan Euskadi eta Nafarroako taldeek parte hartu dute. Tolosako Igarondo Urpekoak taldetik 24 igerilari izan dira.

Taldetik bertatik azaldu dute-nez, denboraldia hasteko izan da proba hori, «lehiaketan gorputzak martxan jartzeko, baina denek bere neurria eman dute. Hel-

duetan, Irati Lakunzak eta Aras Karakusek 50 metro apnea eta 100 metro ur-gaineko probak irabazi dituzte. Gazteetan, urte-tik urtera progresio handia ikusten zaie». Nesketan Aritz Auzmendi, Nerea Telleria, Nahia Lizarra eta Jone Gorostidik hartu dute parte 4x200 metro erreleboetan, eta mutiletan John Barrel, Markel Arrizibita, Manex Zamora eta Jon Telleriak, emaitza onak lortuz. Ligaren hurrengo jardunaldia azaroan dute.

Iker Amiano irabazle Egian, eta bigarren Cafes Baquen

TOLOSA // Tolosa-Aurrera pilota elkarteak Iker Amianok bi final jokatu ditu asteburuan. Egiako txapelketan Zalakainekin batera 22-14 irabazi zieten Fernandez-Garcia bikoteari. Beste finalean ez zuen txapela janztea lortu Amianoks. Cafes Baque Txapelketako finala jokatu zuen Morgaetxeberriaren aurka Iurretan, eta 14-22 galdu zuen.

Bigarren jardunaldia jokatu dute Ogi Berri Txapelketan

TOLOSA // Migel Soroaren Oroimenezko Ogi Berri Txapelketan bigarren jardunaldiko emaitzak hauek izan dira: jubeniletan, Alonso-Ugartemendia 17, Naldaiz-Egaña 22; etorkizunetan, Olaetxea-Garmendia 22 eta Alberdi-Etxeberria 6; elite mailan, Zubizarreta-Uriondo 22, Ugalde-Altuzarra 13. Asteburu honetan ez da jardunaldirik izango.





ASTEAZKENA, 2019KO URRIAK 30
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreata zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



BABESTUTAKO EDUKIA

Gai sozialak eta kultur ondarea lantzeko tartea, Polonian

Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuko bost ikasle eta bi irakasle aste bete pasa dute Polonian, Erasmus+ KA229 proiektuaren barnean

Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuko bost ikasle eta bi irakasle Polonian izan dira, trukean, Erasmus+ KA229 *The Guardians of Europe* proiektuaren baitan. Irailaren 28tik urriaren 6ra egin dute egonaldia, Polonia-ko Cieszyn hirian.

Europako bost herrialdeetako ikastetxeen artean prestatutako proiektua da Erasmus+ KA229: Polonia, Italia, Portugal, Grezia eta Euskal Herriko ordezkariak hartu dute parte. Bakoitzak bere ikastetxetan landu ditu egin beharrekoak, eta Italian eta Grezian izan ondoren, Polonian egin dute hirugarren trukea.

Proiektuaren lehen zatiko helburu nagusiak, «ikastetxetan ematen diren arazo sozialei buruzko ezagutza areagotzea eta, Europako herrialde ezberdinetan, hauen aurrean erabiltzen diren irtenbideak zabaltzea dira», Juan Luis Nazabal irakasle eta Nazioartekotze arduradunak azaldu duenez.

Proiektua garatu ahal izateko, bost arazo nagusi aurreikusi dituzte herrialde guztien artean: berdintasuna, tolerantzia, ziberjazarpena, elikadura osasuntsua eta heziketa fisikoa.

Gai horiek kontuan hartuta, herrialde bakoitzak kanpaina sozialak eraiki behar izan ditu. Tolosaldeko ikasleek berdintasunaren gaia jorratu dute. «Horrelako kanpainak zer helburu

dituzten, posterrak nola egiten diren eta argazki edota bideo egokiak nola egiten diren ikasi dugu, eta ondoren, kanpaina garatu eta zabaltzeko egin dugu sare sozial eta bestelako komunikabideetan», dio Nazabalek. Tolosaldeko ikasleen kasuan, emakumeak Lanbide Heziketako ziklo industrialetara erakartzeko kanpaina bat prestatu dute: «Estereotipoak puskatu eta emakumeak lanbide industrialetara bideratzea izan da asmoa, eta horren inguruko bideo bat egin dugu».

Behin herrialde bakoitzak bere kanpaina garatuta, elkarbanatu egin dituzte beste herrialdeen artean, hau da, Tolosaldearen kasuan, poloniarrek ziberjazarpenaren inguruan egin duten kanpaina hartu eta Euskal Herrian zabaltzeko.

POLONIAKO EGONALDIA

Iraila amaieran, Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuko bost ikasle eta bi irakasle Poloniarako bidea hartu zuten. Erdi mailako zikloak egiten ari diren bost ikasle joan baziren ere, guztira 20 ikasle eta 8 irakasle inguruk hartu dute proiektuan parte. Poloniara eginiko trukean, ordea, hiru espezialitateko ikasleak joan ziren: sare informatikoen kudeaketakoak, instalazio elektrotakoak eta mekanizaziokoak.

Poloniako Cieszyn hirian egin



Poloniako Cieszyn hirian desfilea egin zuten proiektuan parte hartu duten herrialdeetako ordezkariak. TOLOSALDEALHI

zuten egonaldia, eta besteak beste, aurrez garatutako kanpainen inguruan aritu ziren lanean, eta tartean, kanpaina sozialen jaialdia egin zuten: «Herrialde bakoitzak, bere kanpaina aurkeztu genuen besteen aurrean: nola burutu dugun, zer pauso eman ditugun eta nola zabaltzeko azaldu genituen». Poloniarrek egindako kanpaina nola hartu eta zabaltzeko zuten ere azaldu behar izan zuten.

Horren ondoren, herrialde bakoitzak stand bat prestatu zuen, bakoitzaren herrialdeko produktuak erakutsiz, eta proiektuan zehar egindako eskuorriak jarritz.

Bestalde, hirian barrena desfile bat ere egin zuten. Herrialde bakoitzak bere produktuak eta materialak erakutsi zituen kilometro inguruko ibilbidean.

Beste egun batean, berriaz, Cieszyn hiriko alkateak harrera egin zieten proiektuan parte hartzen ari diren ikasle zein irakasle guztiei: «Harrera egiteaz gain, hiriaren inguruko azalpenak eman zizkigun» azaldu du Nazabalek.

Aurkezpen horiez gain, beste-lako jarduerak, tailerrak eta jolasak egin zituzten, inguruak eza-

gutzeko. Bisita kulturalak egiteko tartea ere hartu zuten: «Krakovia bisitatu genuen, eta bertako gaztelu, jauregi eta eraikuntzak ezagutu genituen; 1300 urte inguruko gatzaren meategi batera ere joan ginen». Auschwitz kontzentrazio esparrua ezagutzeko aukera ere izan zuten.

Bisita kultural horietan, proiektuaren bigarren zatia ekin zioten. Europako kultur ondarea babestea izan da proiektuaren bigarren zatiko helburu nagusia. Nazabalek aipatu duenez, «horretarako ere prestakuntza bat jaso dute ikasleek: zer den ondarea, zer hartzen den kontuan, nola zaindu dezakegun eta nola kontzientziatu gaitezkeen horretarako».

Bisitetako bat baserri batera egin zuten. Gazta, mamia, guri, ogia eta taloak nola egiten diren ikusteko aukera izan zuten: «Garai batetik honako bilakaera azaldu ziguten, eta ikasleek guri eta gazta egiteko aukera izan zuten; baita dastatzekoa ere».

AURRERA BEGIRAKOAK

Datozen hilabeteetarako ere badute zeregina ikasle eta irakasleek: «Herrialde bakoitzak bere al-

detik, ondare kulturalaren inguruko materiala sortu behar dugu: zer identifikatzen dugun ondare kultural bezala. Gure kasuan, euskal kultura izan daiteke, ohi-turak edota hizkuntza bera», dio Nazabalek.

Arazo sozialekin egin zuten moduan, kultur ondarearekin ere kanpaina bat egitea da asmoa. Kasu honetan, ordea, herrialde guztien artean kanpaina bakarra prestatuko dute. «Bigarren kanpaina honetan, Europako kultur ondarea zein den ezagutu, bere garrantziaz jabetu eta zabaltzeko egin nahi dugu, kanpaina sozial baten bidez».

Proiektuak, bere osotasunean, bi urteko iraupena du, eta 2020ko ekainean amaituko da. Dagoeneko eginak dituzte hiru truke: lehena Siziliara (Italia), bigarrena Kretara (Grezia) eta azkena Cieszynera (Polonia). Datorren urtarrilean Tolosak jasoko du gainerako herrialdeen bisita. Eta bisita horretan zehaztuko dituzte kultur ondarearen inguruko kanpainaren nondik norakoak. Azken trukea maiatza inguruan egingo dute, Portugalen: «Azken bisita horrekin amaiera emango diogu proiektuari».